

PRODISCAT

DISLEXIA DETEKTATZEKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA HEZKUNTZA- ESPARRUA

Argitaratzailea:

Departament d'Ensenyament de
la Generalitat de Catalunya.

Egilea:

Col·legi de Logopedes de Catalunya –
CLC

LEHEN HEZKUNTZA
GOI-ZIKLOA (5. ETA 6. MAILAK)

Lehen hezkuntzan dislexia antzemateko adierazleak behatzeko protokoloa (goi-zikloa, 5. eta 6. mailak)

Ikaslearen izena Ikasturtea

Jaiotze-data Balorazio-data.....

ETAPA	ITEMAK	BAI	EZ
GOI-ZIKLOA (5. ETA 6. MAILAK)	<i>Aspektu orokorrak</i>		
	1. Irakurtzeko edo idatzeko zailtasunak dituzten familia-aurrekariak dauzka		
	2. Errendimendu kognitiboaren eta akademikoaren arteko aldea ikusten da		
	3. Ahozko eta idatzizko lanaren arteko alde nabarmena dago		
	4. Irakurmenaren eta ahozko ulermenaren arteko aldea antzematen da		
	5. Errendimendu ezberdina du hizkuntza-ikasgaien eta ikasmilako gainerako ikasgaietan		
	6. Ahaleginaren eta emaitzen arteko aldea antzematen da		
	7. Errendimendu akademiko aldakorra du		
	<i>Aspektu espezifikoak</i>		
	8. Hitz egiten duenean lexikoa erabiltzeko zailtasunak ditu		
	9. Kosta egiten zaio ideiak ahoz modu ordenatuan aurkeztea		
	10. Azaldu nahi duena sintetizatzeko zailtasunak dauzka		
	11. Irakurketa mantsoa da gela-taldearekin alderatuta		
	12. Irakurketan akats asko egiten ditu: omisioak, aldaketak, fragmentazio okerrak, eransketak		
	13. Irakurtzean hitzak asmatzen ditu		
	14. Hitz ezezagunetan irakurtzeko zailtasun espezifikoak dauzka		
	15. Irakurtzean intonatzea kosta egiten zaio Ez ditu etenaldiak errespetatzen		
	16. Ez zaio irakurtzea interesatzen		
	17. Ozen irakurtzea saihesten du		
	18. Irakurmenean zailtasunak ditu		
	19. Ortografia-arauak badakizki baina ez ditu aplikatzen		
	20. Idaztean ortografia-akats asko egiten ditu		
	21. Grafismo-zailtasunak dauzka		
	22. Ideiak idatziz antolatzeko, egituratzeko eta azaltzeko zailtasunak dauzka		
	23. Atzerriko hizkuntzak ikasteko zailtasun handiak dauzka		
	24. Buruko kalkulan sarri huts egiten du		
	25. Idatzizko kalkulan akatsak egiten ditu		
	26. Ikur matematikoak nahasten ditu		
	27. Neurri-unitateak aldatzea kosta egiten zaio		
	28. Bidertzeko taulen domeinu eskasa du		
	29. Errendimendu eskasa du idatzizko matematika-problemak ebazten		
	30. Kosta egiten zaio informazioa kronologikoki ordenatzea		
	31. Trebetasun eskasa du hiztegian bilatzeko		
	32. Laburpenak egitea kosta egiten zaio		
	33. Zailtasunak dauzka agenda egunean eramateko		
	34. Eskolako lanak egiteko denbora gehiago behar izaten du		
	35. Arreta jartzeko eta kontzentratzeko gaitasun eskasa du		
	36. Eskolako lanean autonomia eskasa du		
	37. Lan-erritmoa jarraitzea kosta egiten zaio		
	38. Eskolako lanen aurrean segurtasun-eza atzematen da		
	39. Maiz motibazio eskasa izaten du irakurri eta idatzi behar den ariketatan		
	40. Ez da efizientea lana antolatzen eta planifikatzen.		
41. Bere gauzak ordenatzea kosta egiten zaio			
42. Ezegonkortasun emozionala agertzen du			

Oharrak

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

- **Beltzez** dauden itemetako baiezko erantzunak arrisku handiaren adierazle dira eta esku-hartzea eskatzen dute.
- Gainerako itemetako baiezko erantzunak (beltzez ez daudenenak) sintomak areagotu ditzaketan loturiko zailtasunen adierazle dira eta esku-hartzeko estrategiak planifikatzerakoan kontuan hartu beharko dira.

LEHEN HEZKUNTZAKO GOI-ZIKLOKO IKASLEENTZAKO JARRAIBIDEAK (5. ETA 6. MAILAK)

ORIENTABIDE OROKORRAK

- Ziklo honetan eta irakasleak behaketa-protokoloa osatu duelarik, beharrezkoa izango da dislexia gaitza baztertzeko edo berresteko diagnostiko diferentziala edukitzea.
- Hizkuntza idatzian zailtasunak berresten badira, bi norabidetan jardun beharko da:
 - Alde batetik, ikaslearekin hizkuntza idatziaren ikaskuntza indartzen jarraitzea
 - Bestalde, ikasgai bakoitzaren ikaskuntza bermatzeko beharrezkoak diren egokitzapen metodologikoak egitea, nahiz eta ikasleak hizkuntza idatziaren baliabideak hori lortzeko bitarteko gisa eskura izan ez.
- Kasurik larrienetan bigarren esku-hartze maila eta agian hirugarrena gomendatzen da.
 - Bigarren esku-hartze mailak ikasleak irakurketa eta idazketaren ikasketa egiten jarraitzeko laguntza osagarria edukitzea eskatzen du; talde txikian edo banaka egin daiteke eta esku-hartzea ikaslearen aurrerabidea bermatzeko jarduera egoki eta egokituekin egingo da.
 - Hirugarren esku-hartze maila, bere zailtasun espezifiko eta, oro har, larrietara egokitu behar den programaren egokitzapen pertsonalizatua eskatzen duten ikasleentzat. Kasu honetan curriculumeko edukietara sartzeko bideak egokitu beharko dira eta, beharrezkoa bada, banakako programaz arituko ginateke (BP): modu intentsiboan landu beharko litzateke, denbora-tarte jakin batean, berandu diagnostikatutako ikasle dislexikoei idatzizko hizkuntzarako edo konpentsazio-baliabideetarako sarbidea errazteko.

ESKU-HARTZE ESPARRUA	JARDUNAK
PERTSONA LA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleari bere zailtasunen berri dugula jakinaraztea, berarekiko interesa dugula eta ikaskuntza-prozesuan lagunduko diogula, ikaskideek adina aukera izan ditzan. • Gaiaz hitz egiteak eta zailtasunak onartzeak ez du esan nahi ikaslea bere ardurez salbuesten denik. • Hizkuntza idatzian zailtasunak izatea ulertzeak frustrazioa, estresa, presioa eta nekea eragin ditzake eta horrek ikaslea egokiak ez diren jarrerak hartzera eraman dezake. • Auto-estimua bultzatzea eta ondo egiten dena jendaurrean aitortzea. • Ikasleak bere zailtasunak porrot gisa bizi ez ditzan beharrezkoak diren jardun guztiak abiaraztea: bere erritmoa errespetatzea, egitekoak urratsetan sekuentziatuta ematea, aurrera pausuak aitortzea, taldearen aurrean ozen ez irakur araztea... • Lotsagarri utz dezaketen egoerak saihestea: kalkuluak egiteko abiadura, arbelean idaztea, akatsak kolore biziz zuzentzea, etab. • Gelan ikasleak ondo egiten dituen gauzak nabarmentzea. Irudimen eta sormen handiko haurrak izan ohi dira. Ahal dutenean nabarmentzeko aukera ematea.
FAMILIA ARTEKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Familiaren inplikazioa bilatu behar da Zailtasunen berri ematea eta eskolan seme-alabaren aurrerabidea errazteko jarraituko diren estrategiak eta jarraibideak ezagutaraztea. • Seme-alabek irakurketarekiko duten motibazioari eusten jarraitzeko eta jarduera atsegina izaten jarrai dadin jarraibideak eta orientabideak ematea. • Garrantzitsua da, ahal den neurrian, ikaskuntza-prozesua konpartitua izatea eta batera lantzea, eskolaren eta familiaren artean.
SOZIAL A	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaskideei ikasleak dauzkan irakurtzeko eta idazteko zailtasunen berri ematea komeni da. • Ikasgelan eta ikasle guztiekin aniztasunarekiko errespetua landu behar da.
ESKOLA	Ikaslearekin aritzen den irakasle-talde osoaren lan onetsi eta koordinatua dago, curriculumeko ikasgaietan beharrezkoak diren egokitzapen metodologikoak egin ahal izateko. Tutorea da arduraduna.

ESTRATEGIA METODOLOGIKO	ZER EGIN?
Irakasleak ikaslearen aurrean duen jarreraz	<ul style="list-style-type: none"> • Honelako adierazpideak ez erabiltzen saiatu: "gehiago saiatu", "hobeto fijatu"... Dislexia daukaten ikasle gehienak ahalegindu egiten dira baina ez dute nahi bezalako emaitzarik lortzen eta horregatik interesa eta arreta galtzen dituzte. Ez da harritzekoa egun batean dena oso ondo egitea eta hurrengoan oso gaizki; dislexia duten ikasleen errendimendua oso aldakorra da. • Bere defizitari loturikoan malgua izan: lehenago bazekizkien gauzak ahaztea, gaizki irakurtzea, ortografia-akats asko egitea. • Lotsagarri utz dezaketen egoerak saihestea: kalkuluak egiteko abiadurako talde-ariketak, arbelean idaztea, ikaskide batek testu bat zuzentzea, akatsak kolore biziz zuzentzea, etab.
Jarraibideak emateko moduz	<ul style="list-style-type: none"> • Ez eman ahozko agindu asko aldi berean. • Idatzizko jarraibide luzeegiak erabiltzea saihestu eta urrats askotan zatitu. Jarraibide idatziak argiak eta zehatzak izan behar dira.
Euskarriez	<ul style="list-style-type: none"> • Curriculumeko edukiak euskarri ezberdinetan aurkeztu: bisualak eta entzunezkoak (eskemak, mapa kontzeptualak, Power Point, dokumentalak, pelikulak, arbel digitala horma-irudi interaktiboekin...). • Ikasleari IKTak (irakurgailu informatikoak...), irakurketa eraginkorreko liburuak, "Irakurketa errazeko" liburuak, bidertzeko taulak, etab. erabiltzeko erraztasunak eman. • Ikasleari hiztegi pertsonalizatuak egitea gomendatu. • Kolore-kodeak erabili kontzeptu ezberdinak memorizatzen.
Aintzat hartu beharreko beste hainbat alderdi	<ul style="list-style-type: none"> - Indartzea Trebetasun guztiak praktikaren bitartez indartu ikaskuntzaren osagai guztietarako sarbidea automatizatzen. - Trebetasunak irakatsi • Ikaskuntza trebetasun erabilgarri eta transferigarriak garatzen zentratu, beharrezkoa ez den eta ikasleak ezin gogoan har dezakeen informazio asko eman ordez. Metakognizioa • Ikaslea beretzat baldintza ezberdinetan erabiltzeko onenak diren estrategiak eta baliabideak zeintzuk diren pentsatzera bultzatu. • Helburua ikaslea bere zailtasunez jabetzen hastea da, konpentsazio- eta autoerregulazio-estrategiak aplikatu ahal izan ditzan.
Hizkuntza idatziaren ikaskuntzaz:	<ul style="list-style-type: none"> Arintasuna eta zehaztasuna • Ikasleak hitzak eta esaldiak irakurtzen praktikatzen lagundu eta arreta hitzen dekodifikazioan jartzeak ez duela ulermena ezbaian jartzen bermatu. Arintasuna eredu zuzenarekin lortzen da, eta haurra laguntzarik gabe ozen ez irakurrarazten. Baterako irakurketa-jarduera indartzea irakasleak ikasleari ereduak eskaintzeko aukera da. • Gelan ozen modu inprobisatuan irakur ez dezan saiatu. • Ikasleak bere borondatearen kontra jendaurrean irakurtzea saihestu. Hiztegia irakatsi eta domeinua bermatu • irakurriko dituen hitzen esanahia ezagutzen irakatsi eta hitz berrien esanahia deduzitzen eta ulertzen ikasi. • Testuak bere irakurketa-errendimendura egokitzen saiatu, laburragoak eta hitz errazagoekin. Ukertzen irakatsi Irakurri baino lehen beharrezkoak diren ezaguerak aktibatzen jarduerak egin, irakurketaren ulermena egiaztatzen eta kontrolatzeko beharrezkoak direnak, eta ikaslea testua ulermen-galderak erantzun baino lehen testua berrikusi eta berrirakur dezan ohitu. Ikasleari testu bateko hitz gakoak antzemateko estrategiak irakatsi, irakurketan - Adierazpen idatzia irakatsi • Tipologia ezberdineko testuak egituratzen irakatsi (deskribapena, narrazioa, esposizioa...), aurrez ezarritako eskemen bitartez eta esaldi laburrak baina behar bezala eraikiak eta bere elementu guztiekin erabiliz. • Txantiloak eman, konektore, adberbio, adjektibo eta abarrekin, testu idatziak egituratzen laguntzeko. • Bere idazkerako akats ortografiko guztiak sistematikoki ez zuzendu. • Ikasleak arbeletik kopiatu behar izatea saihestu eta ahal dela materiala idatziz eman. • Liburuko enuntziatuak orrian berriro idatzi beharra saihestu.

	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduerak amaitzeko denbora gehiago eman. • Lan idatziak ordenagailuz aurkeztea ahalbidetu.
ESTRATEGIA METODOLOGIKO	ZER EGIN?
Denboraren antolakuntzaz, planifikazioaz eta kudeaketaz	<ul style="list-style-type: none"> • Gelan egutegi bat eduki, ebaluazio, entrega eta proiektu edo lanen datekin, horien artean denbora-tarte jakin bat uzten saiatuz. • Arreta edota antolaketa pertsonaleko zailtasunen aurrean, antolaketa pertsonaleko auto-jarraibide txartelak eduki (jarduera- edo ikasgai-aldaketak, motxila prestatzea, etxeko lanak egitea...). • Karpeta berrikusi eta lanak ordenatzen eta sailkatzen lagundu. • Agenda berrikusi. • Egutegi bisuala eta ahozkoa eduki lanaren antolaketa eta planifikazioa errazteko. • Lana tarte labur baina bizitan zatitu, nekea saihesteko eta kontzentrazioari mesede egiteko. • Normalean, gelan amaitu gabe geratu diren lanak etxeko lan gisa ez utzi.

DOIKETAK ETA EGOKITZAPNEAK	ZER ERRAZTU BEHAR DEN
Eskola-inguruaz	<ul style="list-style-type: none"> • Gela barruan duen kokapena aintzat hartu behar da eta ikaslea maisuarengandik gertu egon dadin saiatu. • Ahal dela, hobe da distrakzio-elementuak saihesten saiatzea.
Ebaluazio-lanez	<ul style="list-style-type: none"> • Azterketen datak aurrerapenez jakinarazi. • Ikasleak egunero azterketa bat baino gehiago izan dezala saihestu, baita astean bi baino gehiago ere. • Behin azterketa hasita, ikaslearengana gerturatu eta, beharrezkoa bada, galderak irakurrik. Ulertu dituela egiaztatu. • Ebaluazio-probetako galderak oso luzeak izan ez daitezen saiatu, galera irekiak ere ekidin, ideiak antolatzea eta modu ordenatuan idatziz adieraztera behartzen dutenak; hobe da galdera zehatzak erabiltzea. • Azterketak eta lanak bere edukiaren arabera ebaluatu (ez formaren arabera). • Azterketak ahoz edo formatu bisualagoak erabiliz egiteko aukera aurreikusi. • Azterketako galderak marrazki edo grafikoen bitartez erantzuteko aukera eman. • Azterketa eta ebaluazioetako ortografia-akatsak amaierako nota jaitea edo ez gainditzeko arrazoia izatea saihestu. • Zuzenketetan, gorria ez diren beste kolore batzuk erabili (ikasleek kolore hori porrotarekin lotu dezakete).
Curriculumeko material ezberdinez	Egokitzapenak
1. Gaztelania eta euskal hizkuntza: a	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurmena askotan irakurketa dekodifikatzeko zailtasunek baldintzatzen dutela jakitun izan. • Egin behar dituen ariketen enuntziatuak irakurri, beharrezkoa bada. • Ozen irakurtzen ez behartu. • Gelan ozen irakurri behar badu, testua aurretik eman. • Edozein irakurketarako behar duen denbora eman. <ul style="list-style-type: none"> • Diktaketetan, gelan lantzen ari diren ortografia-akatsak baizik ez zuzendu, edo ikaslearekin aurrez hitzartutakoak. • Prestatutako diktaketak egin. • Diktaketaren formatua egokitu, une horretan lantzen ari den ortografia-arauri men egiten dioten hitzetara hutsuneak utziz. • Diktaketaren erritmoa ikasleari egokitu. • Testu idatzietan, edukiari garrantzi handiagoa eman formari baino. • Galderei erantzuteko behar adina toki utzi. • Bi hizkuntzen arteko interferentziak edukitzea ulertu.

<p>Testu baten ulermena</p> <p>- Derrigorrez irakurri beharreko liburuak:</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Testuaren edukia egokitu, hiztegia edo egitura sintaktikoak sinplifikatuz. • Testuko hitz gakoak edo jarraibideak ematen dituztenak azpimarratu. • Testua zatitu eta, zati bakoitzaren ondoren, zati horri men egiten dioten ulermen-galderak erantsi. <p>• Derrigor irakurri beharreko liburuak gutxiagotu edota behar bezala aukeratu, formatua eta ikaslearen interesa aintzatu hartuz.</p>
<p>2. Matematikak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Manipulazio-material osagarria erabil, abakoak, erregelak, etab. • Oinarrizko eragiketen kalkulu-prozesua balioetsi eta ez buruko kalkuluko akatsak. • Problema ebazteko prozedura balioetsi eta ez eragiketen emaitzak. • Ikasleari bidertzeko taulak eskura izan ditzan ahalbidetu, bai gelan, baita azterketetan ere. • Problemetako hitz gakoak nabarmendu eta `problema irudikatzen dituzten marrazkiak eman.
<p>3. Natura- eta gizarte-zientziak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arbelean gidoi bat egin, hitz gakoak jasoz, gai bat azaltzen hasi baino lehen. • Galdera espezifikoa eta erantzunen laburrekoak egin. • Enuntziatu edo testu batean hitz gakoak identifikatu eta azpimarratu. • Hiztegi akademikoa murriztu. • Adierazpen idatziko eta ortografia-akatsak aintzat ez hartu azterketa zuzentzerakoan.
<p>4. Atzerriko hizkuntza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hitz irregularretan akatsak ez zuzendu. • Ahozko hizkuntza sustatu. • Hiztegia murriztu. • Egin beharreko diktaketa aurrez eman